

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen Laudioko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu-enpresetan euskarazko errotuluak sustatzeko dirulaguntza deialdia 2020. urterako**

BDNS (Identif.): 499290

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Laudio udalerrian egoitza edo ordezkaritza duten merkatarari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiak betiere merkatarari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikientzako udalaren euskara planean partaide badira. Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahal izango dira.

#### **Bigarrena. Helburua**

Deialdi honen xedea da Laudion dauden merkatarari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiei dirulaguntzak ematea euren errotulazio-gai berrietan euskara txertatzeagatik.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2017ko ekainaren 23an. ALHAOn argitaratu dira 2017ko uztailaren 3an.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiaren diru-kopurua 2.000,00 euro da.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2020ko azaroaren 6ra arte.

Laudio, 2020ko martxoaren 6a

*Alkate-udalburua*

**ANDER ANIBARRO MAESTRE**